



GORKA PRIETO

## Jokoz kanpo

Noiz edo noiz denok harrapatu gaituzte jokoz kanpo. Hauteskunde aurreko garai honetan inoiz baino gehiago ari da giroa nahasten. Denek nahi dute defentsa aurreratuarekin jokatu, aurkaria jokoz kanpo uzteko. Baina, beti bezala, taldeak eta taldeak daude, batzuk beti zorigaitzoz beteta eta beste batzuk arbitroen faboreek lagun-duta.

Giro sozial eta politikoan bizi duguna benetako futbol zelaietara ere hedatu da. Orain 3-4 urte kasik jainkoak zirenak orain hutsaren hurrena besterik ez omen dira. Dena ez da beltza ezta txuria ere... baina zein zaila den batzuetan gris tonu egokia aukeratzeari!

70. hamarkadan jaiotakook ez dugu inoiz Erreala bigarren mailan ikusi. Eta edozein adinekoa izanda, Athletic ere ez. Oraindik ia liga erdi falta da, baina astelehenetan beraien umorea aurreko egunean futbol taldeek egiten dutenaren arabera izaten dutenak larri dabilta dagoeneko. Mundua bukatuko balitz bezala!

Aspaldixotik ari dira Bilbo eta Donostia aldeko taldeak gauzak gaizki egiten; Erreala, kanpotarrak ekartzen hasi zen hain li-

ga indartsuan konpetitiboa izateko. Hasi 1, gero 2, gero beste 7, eta horrela ONUren delegazio bihurtu arte. Kanpotarrak ekarrita taldea bigarren mailara jaistear badago, zer zentzu izan du harrobiaren inguruko filosofia hausteak? Kanpotarrekin ere bigarren mailara jaisteko besteko joko txepela egin baldin badute, nahiago nukeen etxekoekin bakarrik jokatu; eskasago egitea ezinezkoa baita.

Athleticen ere antzera. Bere harrobiagatik urtetan oso talde mirestua izan zena, bere harrobia deskuidatu eta beste taldeetako jendea fitxatu eta fitxatu aritu da azken bi hamarkadetan. Hori bai, denak euskaldunak (den-denak ez baina...). Hala ere, Athleticen harrobia Euskal Herria dela esaten dutenek egiari bizkarra ematen diote. Zer da bestela Lezama? Garagardo marka bat?

Behin, goizeko ordu txikietan euskal independentziatzale lagun batek esan zidan bezala 'Erreala eta Athletica bigarren mailara jaisten badira euskal liga berri bat sortu beharko dugu!. Horrats independentziarako lehen urratsa!' Osasuna ahaztu zuen hala ere. Ez al dira ba euskaldunak?

**ATHLETICEN  
HARROBIA EUSKAL  
HERRIA DELA ESATEN  
DUTENEK EGIARI  
BIZKARRA EMATEN  
DIOTE.**



### Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkarte  
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze  
Telefonoa 943 75 13 04  
comunidad: kzgunea.net/PilPileanKulturaElkarte/EU  
E-mail: pilpilean@euskalnet.net

**Erredakzio burua:** Arianne Unamuno

**Erredaktoreak:** Jon Basauri, Arianne Unamuno eta Maite Kintanilla

**Publizitatea:** Ane Larreategi

**Logotipoa:** Jon Gabilondo

**Banaketa:** Pil-pilean **Ekoizpena:** 1.920 ale

**Inprimategia:** Gertu Koop.

**Diseinua eta maketazioa:** KOH diseinu grafikoa

**I.Z.K.-a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

*Pil-pilean Kultura Elkarreak ez du bere gain hartzen aldizkari esanen eta iritzien erantzunkizunik.*

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



### ERREPORTAIA

*Gerra Zibilak milaka ume behartu zituen euren herritik joatera. Frantzia, Ingalterra, Errusia... baita Belgikara ere. Han izan zen Lucia Etxabe anai-arreba birekin urtebetez. Etxera bueltatu eta bizi osoa josten eman du.*

## Zorion agurrak



### Oihan Larrañaga

Martxuan 4an  
urtebete

#### Zorionak txikitajo!

Patxo haundi-haundi bat  
gure txikixari Ekain eta  
etxeko danen partez



### Jon Urdangarin

Martxuan 9xan  
6 urte

#### Zorionak eta muxu haundi bat!

Etxekoen partez



### Iñaki eta Markel

#### Zorionak !

Julen eta bestion partez.  
Ondo pasa!!



### Ane Ugalde

Martxuan 21ian  
24 urte

#### Zorionak paiaita!

Hori da sorpresia emon  
dotsuguna!



### Itxaso Cenzual

Martxuan 7xan  
19 urte

#### Zorionak Txurfera!

Etxeko guztien partez  
ondo pasatu!



### Iraultza Ostolaza

Martxuan 20xan  
4 urte

#### Zorionak politta!

Pozez zoratzen gaittuzu!  
Ondo pasatu Amatxo, Aitaxo  
eta etxekuen partez.



### Ainhoa Gonzalez

### Ines Fernandez

Martxoak 5ian eta 14an  
3 eta 57 urte

#### Zorionak eta muxu haundi bat bixori!

Etxekuen partez

Lagunak, familiakoak, lankideak... zoriondu nahi badituzu, argazkia eta zorionduaren datuak Iratxo goxodendan utzi edo [pilpilean@euskalnet.net](mailto:pilpilean@euskalnet.net) helbidera bidali .  
(Bertara bueltatuko dizkizugu argazkiak).

## Gutunak

### Lotsagabeak eta txepelak

- Kaixo!
- Urte askotarako. Zer moduz atzo?
- Oso ongi eta zuek zer?
- Ezebez.

Zer ari da gertatzen? Ba neska polit bat ikusten badut, ez dela berdina. Badirudi. Hori dek.

OK. Emakumea zutik eta matxismoa behera. Egixa da, egixa dala! Entzuteko, entzuteko!

Emakumeak askatuta nahi ditut. Eta hori, ordua dala, lotsagabeak kanpora! Bai!

Ez inoiz pentsatu erraza denik.

Gabriel Galan

### SAHren oharra

Soraluzeko Askatasun Haizeak Herri Plataformak adierazi nahi du ez duela inongo irisgarritasun planik onartu Udalean.



Informazio gehiago  
900 110 111 doako telefonoan  
[www.gipuzkoa.net/gazteria](http://www.gipuzkoa.net/gazteria)  
Buletinen harpidetza !!!

## Ikastaroak

### • Elkartasuna eta lankidetzak

Interred Euskal Herria.

Tailerra: jolas kooperatiboak  
eta solidaritatea.

**Egunak:** 2007ko martxoaren  
17 eta 18an.

**Epea:** 2007-03-14

**Telefonoa:** 943 293847 / 943 279044

**Emaila:** [interred@euskalnet.net](mailto:interred@euskalnet.net)

## Lehiaketak

### • Ipuin lehiaketa

Kimetz Elkartea. XIII. Kimetz ipuin lehiaketa. Gaia librea. Luzera gutxienez 5 orrikoa eta gehienez 10 orrikoa.

**Epea:** 2007-04-18

**Telefonoa:** 943 805630

**Emaila:** [kultura@ordizia.org](mailto:kultura@ordizia.org)

## Bekak

### • Atzerrian frantsesa eta ingelesa ikasteko

Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa.

2007ko uztailaren 1etik urriaren 31ra bitartean atzerrian gutxienez hiru asteko egonaldiak igaro eta frantseseko edo alemaneko ikastaro bat egiteko 1.000 laguntza.

**Epea:** 2007-03-30

**Telefonoa:** 902 111225

**Emaila:** [info-beca@mec.es](mailto:info-beca@mec.es)

## IRAGARKIAK

- Bajera bat alokatzen da Ezoziko Bidean. Telf: 6183039946

## Jaiotakoak

- YAEL TRIGO FAJARDO
- JAVIER PLATA MATEO

## Hildakoak

- MIREN EDURNE LAKUESTA GOROSABEL
- GUADALUPE OREGI ASTIGARRAGA
- JOSE MANUEL ELIZBURU ARAKISTAIN

*Alderdi politikoak maiatzeko udal hauteskundeetarako zerrendak prestatzen ari dira. Oraingoz EA-k bakarrik aurkeztu du bere hautagai nagusia. Alderdi bakoitzak hamaika laguneko zerrenda aurkeztuko du Udaleko hamaika zinegotzi karguetarako.*

# Izango zinake zinegotzi Udalian?



**Julia Tito**

35 urte  
langilia

Ez, hemengo berri ez dakat eta. Hala eta be, uste dot zinegotzi izango danak jentiaz arduratu biharra dakala beste guztian gainetik.



**Jon Eloi Bolunburu**

48 urte  
biltegiko langilea

Momentuz ez, izan be ez daukat hortarako denporarik. Zinegotzi izateko burua eukitzia ezinbestekua da eta baitta malizia pixkat be, bestela zapaldu egingo dabe.



**Nerea Unamuno**

36 urte  
etxeoandria

Ba ez dot uste, izan be lan haundixa da eta denpora guztian horren arduran egon bihar zara. Zinegotzi izateko arduratsua eta gauzak argi dittuana izan bihar da.



**Antonio Elizburu**

77 urte  
erretoratua


Ez, entendidu egin bihar da holako gauzetan ibiltzeko. Nere iritziz, nahi dabenak izan deixela, baina esandakua betetzen badau.



**Josefa Maria Aguedo**

40 urte  
etxeoandria

Alde batetik bai, gauza polittak egittek, baina bestetik beti eukiko dozu baten bat zure gainetik agintzen. Argi dago esaten dana betetzia biharrezkua dala lan honetan.



**Manuel Galarraga**

62 urte  
langilia

Izanda nago eta berriz ez neuke nahiko. Zinegotzi izateko kualitadiak bihar dira, edukaziñua eta edadia inportantiak dian bi.

Javier Alonso Zelaieta  
MEDIKU ESTOMATOLOGOA  
K. Z. 20.000.434



**HORTZ KLINIKA**  
Errabal 1 - Barrenekoa 2 • Tel. 943 75 16 13

**Kontulan**  
**Aholkularitza S.L.**  
Enpresa aholkularitza  
Jabe Elkarteak  
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.  
Telefonoa: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soraluze  
GIPUZKOA

# Pil-pileanek urte berrirako erronkak aurkeztu ditu

Pil-pilean Euskara Elkarteak batzar nagusia ospatu zuen bazkideekin martxoaren 3an. 2006ko memoria eta 2007ko egitasmoak aurkeztu zituzten atalez atal. Hedabide sailean, hamabostekariak izango duen diseinu berria, eta bailarako telebistaren eta Soraluzekeo web orriaren sorrera nabarmendu zituzten. "Bai Euskarari" egitasmoa indartu

eta "Berbalagun" bultzatzea izango dira euskalgintzako lan nagusiak. Kulturgintzan, lan taldea indartzearen eta antolatzen diren ekintzen hausnarketa orokorraren beharraz jardun zuten. Haur eta gazte sailari dagokionez, antolatzen direnek arrakasta badute ere, planteatu berriak lantzen hasiko dira.



## LANUZTEA EUSKAL PRESOEN ALDE.

Otsailaren 23an lanuzteak izan ziren Euskal Presoen alde eta Iñaki de Juanaren egoera salatzeko. Denda eta taberna asko itxi ziren, ikastetxeetan ere lanuztea egin zuten eta zenbait lantegitan ere bai.

## 1.750 pago-landare landatuko dituzte Manditturri aldean

"Soraluze Baso Bidez" programaren barruan, pagoak landatuko dituzte hilabete honetan Manditturri inguruko lursailetan. Pinudiak bota egin dituzte otsailean, 2 hektarea inguru denetara, eta martxoan pagoak landatuko dituzte. 11.919 euroko aurrekontua izango du.

## Otsailaren 22ko Udal batzar berezia

Aurrekontuak onartzeko urtaririlean egindako udal batzarrean mahai gainean geratutako gaiez ezbaidatzeko egin zen udal batzar berezia. Haur eskolako estatutuak, eta bere kudeaketarako Eusko Jaurlaritza eta Udalaren arteko hitzarmena onartu ziren, EAJ, EA eta SAHren baiezko botoez eta PP eta PSOEn abstentzioarekin. Abiadura Handiko Trenaren aurkako mozioa eta Iñaki de Juanari buruzkoa ez ziren onartu, bai ordea alternatiboak. EHEren osasungintzan euskarazko zerbitzua eskatzeko mozioa ez zen onartu.

## Gazte Martxaren aurkezpena

Martxoaren 17an jaialdia egingo dute Gaztetxean aurtengo GazteMartxa aurkezteko. Bertso bazkaria, karaokea eta kontzertua ere izango dira. Bazkaritarako izen ematea martxoaren 15a baino lehen egin behar da Gaztetxean edo Arranoan.



## MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren,10  
Telefonoa 943 75 20 91  
Baltegieta, 6  
Telefonoa 943 75 13 99  
SORALUZE

# Itxaropenak zilarrezko ezteiak ospatuko ditu maiatzean

Martxoaren 2an bildu ziren jubila-tuak urteroko batzarrera 2006 ur-teko balantzeak eta antolatutako bidaiei, karta jokoei, txapelketei, hitzaldiei eta bestelakoei errepa-soa emateko. 2007rako asmoen ar-tean, garrantzia gehien edukiko

duena zein izango den ere azaldu zuten: Itxaropenak 25 urte bete-tzen dituela eta maiatzaren 12an ospakizun handia antolatuko du-te. Zehaztasunik ez dute eman oraindik. Ondorean, "piskolabis" eta dantzaldi luzea izan zituzten.



2001ean emakume jubilatutako talde bat barriketan, hitzaldi baten ostean

## Eskolak euskaldundu kanpaina babestu dute herriko irakasleek

Lehen hezkuntza eta bigarren hez-kuntzako irakasle gehienek "garaia delako, bai eskolak euskalduntze-ari" kanpainari beren babesa eman

diote. Ikasle guztien euskalduntzea ziurtatzea ezin bestekoa dela adie-razi dute. BIhar, zapatua, manifes-taldira joateko deialdia egin dute.



## Hitzaldia andreen eskubideei buruz

Emakumeen Nazioarteko Egu-na dela eta, datorren martitze-nerako hitzaldia antolatu du emakume taldeak, Euskal He-rriko emakumeen eskubideen gutunaz berba egiteko. 19etan Kiroldegiko erakusketa gelan izango da.

## Amiamaren hitzaldia gurasoentzat

Joxe Amiama psikologoak mar-txoaren 15ean emango du gaz-tetxoen gurasoei zuzendutako bigarren hitzaldia. Institutuko Keixeta Guraso Elkarteak an-tolatu du eta 18:30etan Kiroldegiko erakusketa gelan izango da.

## KZguneko ordutegia eta ikastaroak

Martxoan astearte goizez egon-go da zabalik KZgunea, 9eta-tik 13etara. Hiru ikastaro eman-go dira: "komunikatu posta elektronikoaren bidez" euska-raz, hilaren 13an 10etatik 12eta-ra; "Postal bat bidal ezazu" gaz-teleraz, hilaren 20an 10etatik 11etara; eta "Etxetik eros eza-zu" euskaraz, hilaren 27an 10etatik 12etara. Informaziora-ko telefonoa: 943799444

## Institutuko errifa

Institutuko ikasleek ikasbidai-rako ateratako otsaileko errifa-ren zenbakia 6.764 da.



**PASCUAL CHURRUGA, S.A.**

Hotzian eta beruan  
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461  
E-mail: [general@pascualchurruga.com](mailto:general@pascualchurruga.com)  
Errekalde 21 20590 SORALUZE



Errebal kalea 2 behea  
Tfnoa 943 75 16 46

**SAN ANDRES**  
Iturgintza

Iturgintza, Gasa, eta  
Berogailuak  
Sukaldeak eta bainuak

1926an jaio zen Lucia Etxabe Zubizarreta. 1936an Gerra Zibila piztu zenean, bere familia Bizkaia alderuntz joan zen, babes bila. Handik gutxira Belgikara bidali zituzten gurasoek bostetik hiru anai-arreba eta baita bueltan etortzera derrigortu ere agintariek urtebete eskasera. Frankismo garaian Soraluzeko Ametsa Ikastolaren sortzaile izandako emakume honek josten jardun du bizi osoan.



## Lucia Etxabe, “Belgikatik etortzera obligatu egin ginttuen”

### GERRAKO UME IZAN ZENEAN

#### Ze giro zeguan Plazentzian gerriak urten aurretik?

Nik bederatzik urte nekazen, eta politikia eta zela zeren ezin esan. Gu ondo genden, bost anai-arreba gurasuekin. Gure aitta Mikeletien kabua zan. Gero gerriak urte eban eta asko ikusi genduan.

#### Zertzuk ikusi zenduezen?

Bonbardeuak eta. Gu Mungian egon ginan, zazpi hilabete Bizkaixan. Gernikako bonbardaketak hasi ziranian, Gallartara juan ginan. Hiru anai-arrebak, hilebete egin genduan han. Baina amak beste bi umekin bertako minetan, tunelian pasatzen eben, koltxoia eruanda.

#### Santurtzin barkua hartuta juan zinaten. Ze akordu daukazu bidai harekin?

Mariatu be egin ginan, baina kubiartara urtetzen genduan. Honezkero hamar urte, Jose Marik hamaika eta Luis Marik zortzi. Hemendik Burdeosera juan ginan Habanan, barko famoso horretan, eta geldi egon ginan itsasuan, zegaittik eze esan zoskuen frankismoko barko bat etorrela barku

horri kalte egittera. Gero lantxetara bajatu eta handik Cabretonen egon ginan hilabete, Belgikara juateko. Girua ona zan, pabeilloietan genden. Han gendela Mujika obispua be juan jakun, kantuan be

*“amak beste bi umekin  
Gallartako minetan,  
tunelian pasatzen eban  
eguna, koltxoia eruanda”*


ikasten egon ginan, hari ongietorrixa egitteko...

#### Zuek bazekizuen Belgikara juango ziniela?

Gure aittak Inglaterrarako apuntatuta laga ginuzen, baina kupua bete zan eta guk lehenengo zenbakixa genkan Belgikarako, 18, 19 eta 20.

#### Frantziatik Belgikara.

Zain eren familixak. Danak euken bakoitzak bere zenbakixa eta geuk be bai. Han ez zeguan apartatzerik. Bi tokatu ginan batera, eta azkenian hirugarrena be gurekin.



“Habana” transatlantikoak ume euskaldun asko eraman zituen atzerrira.



Lucia (ume altuena) familia adoptiboarekin. Borgerhout (Belgika) 1938

Beti bizimodua hiru anai-arrebok alkarrekin egin genduan. Ni egon nintzan etxia oso ona zan. Mutil bixak haren gurasuekin egon ziran.

**Hango familixiakin entenditzeko?** Segiduan ikasi genduan hangua, flamenkua. Hiru hilabeterako dominatzen genduan. Nere anaia Jose Mari urtebete gehixagokin destakaua izan zan eskolan.

**Ze bizimodu zekazuen han?**

Han oso ondo egon ginan, familixa eta kolejixo onian. Oso jakintsuak ziran, ama medikua eta aitta abogatu. Euskal Gobernuak bialduta han bijilatuta genden. Eta harek organizatu eben dantza taldea eta. Guk dantzan egin genduan bete-bete egindako teatro baten. Hango akordu asko eta danak onak dauzkat. Gerora harreman haundixa euki dogu.

*“Cabretonen  
pabeilloietan egon ginan  
hilabete.  
Handik Belgikara”*

**Zenbat denpora egin zenduen han?**

Gutxi, urtebete eskas. Baina etorri ginan obligatu ebelako nere hango aitta gu ekartzera hona. Kartia aillegatzen jakon esanaz ez baginan gu etortzen hona, kartzelara eruango ebela. Belgikako aittak igarri zeban kartia ez zala gure aittak idatzittakua. Baina hiruga-

*“Zorionez,  
oso familixa ona  
tokatu jakun.  
Gerora harremana  
mantendu dogu”*

rrenguan bai, gure aittak eskatu ozkun etortzeko. Beittizu ze giro euan hemen, ez zebe nahi han genden umiok ondo egoterik.

**Zeinek obligatuta etorri zinaten?**

Agintze ebenak. Bilbotik etortzen zan kartia. Bialtzen eben aittak eskribiduko baleu moduan. Belgikako aittak igarri zeban kartia ez zala gure aittak idatzittakua, eta ez ginala etorriko esan zeban. Baina, mordua etorri ginan holan.

**Plazentziatik besterik juan zan Belgikara?**

Nik uste dot mordoxkia juango ginala. Batzuk Bruselasen, beste batzuk Gantesen, gu Amberesen. Han gendela ez ginan enteratzen, gerora bai. Ezagunak asko plantatzen jakun han. Hemengo maistra bat, Guillermina.

**Eta hemen geratu ziranak?**

Bilbo hartu ebenian Plazentziara etorri bihar izan ziran, eta hemen egon bihar etxian. Aitta lan barekan, bota eben Mikeletietatik-eta, eta ama etxian. Orduan eguan “kastigo konpleto” frankistia edo karlistia ez bazinan. Gero amnistia etorri zan baina gure aitta hil eta gero.

## JOSTUNTZA

*“Praka bakoitzeko  
duru gorde baneu,  
eukiko neban  
diru pixkat!”*

**Bizi guztia josten pasatu dozu. Nun ikasi zenduan?**

Sastrerixan. Lau bat bazeren Plazentzian. Hamairu urtekin hasi nintzan ikasten, Perezekin. Gero taillarrera urten neban, baina gero sastriak eskeindu ostan jornaltxo bat.

**Ze lan egitten zenduezen?**

Danetik. Sastriak telia ebagi eta nik zatika josi. Eta harek begiratu emon. Lagun asko ibiltzen ginan, ofizialak lau eta aprendizak pare bat. Gero Barrutiakin ibili nintzan. Praka ebaten erakutsi ostan sastriak eta bizi guztian prakaginan.

**Nun egitten zenduan lan?**

Etxian. Neskak be eukitta nago. Etortzen ziran ikastera. Penia euki dot dendia ez ipini izana. “Acción Católica”n be emoten genduan kortia duan. Gabaz izaten zan, Erregetxian, eta jende asko etortzen zan. Hainbeste taillar eguan, danak haraxe juaten ziran, eta nahi eben zeoze ikastia.

*“Erregetxian kortia  
erakusten gontsan  
jende askori,  
gabaz eta duan”*

**Zenbat kobratzen zenduan?**

Ez naiz gogoratzen, baina gutxi. Norberak be karakterra eduki bihar dau. Akordatzen naiz txaleko bakoitzagaittik bost duro emoten zostela. Eta etiketekin mila pezeta batu eta etxian dakarazen aukixak erosi nittuan. Praka bakoitzeko durua gorde baneu, eukiko neban diru pixkat!

**Nahikua lan eginda orduan.**

Bai, lan asko eginda eta beti gogua egittek. Gogorra izan naiz lanian eta beti komeni jatan baino gehixago hartu. Etxia be atendidu bihar, familixa neukan, edadetuak be bai. Beti ittota. Ondiokan be egitten dot baina etxequendako. Hori sekula ez da galtzen. Bizi guztian eitten dabenak ezin laga.

# Martxoaren 25ean helduko da Korrika

Euskal Herrian zehar ibili ostean, hilaren 25ean pasatuko da Korrika herritik. Aurtengo leloa "Heldu" izango da eta emakumeak omenduko dira, transmisioan duten garrantzia nabarmenagatik. Hainbat Kultur ekitaldi antolatu ditu herriko taldeek osatzen duten Korrika Batzordeak hurrengo bi asteetarako. (Egitarau osoa kontraportadan)

**Martxoak 15:** Koldo Zuazoren hitzaldia: "Herri hizkera eta euskara batua. 19:00etan AEKn.

**Martxoak 18:** Euskarazko film laburrak. 19:00etan kapillan.

**Martxoak 21:** Musika Eskolako kontzertua. 19:00etan frontoian

**Martxoak 23:** Korrika txikia. Asisko eta Edorta. "Baietz okerreko bidea aukeratu" 22etan Gaztetxean.



Musika Eskolako ikasleak Andoaingo piano jaialdian izan ziren otsaileko azken asteburuan. Maialen Oregi, Mirena Alberdi eta Itsaso Ramirezek urrezko domina eta diploma jaso zituzten. Javier Arana eta Elsa Berruetak zilarrezkoa. Argazkian, partaideak eta Nerea Ugarte pianoko irakaslea.

## Euskarazko film laburrak

Martxoaren 18an sei film laburren emanaldia izango da kapilla, 19:00etan.

- **Loturak:** apustuzale baten obesioei buruz.

- **Sarean:** iparraldeko itsasotako arrantzari buruzko dokumentala.

- **Xoxoak beleari ipurbeltz:** Antzinako ipuin txinatar baten bidez, irudimena eta errealitatea.

- **Osaba Jaxinto:** Baserriko bizimodu iluna haurrek aldatua.

- **Midori:** Etnomologo batek Kiotoko kongresuan parte hartuko du. Egun arrunta izango da Midori agertu arte.

- **Bilintx:** Bilitx, antzoki zaharreko kontserjea, dantzari baten eboluzioari begira, kasting batera aurkeztuko da.



## Martxoaren 23an dantzako ensaioa

Martxoaren 23an izango da Dantza taldearen 50.urteurrenerako ensaioa dantzari eta txistularientzat, iluntzeko 7etan goiko eskoletan. Dagoeneko 8 dantza talde osatu dituzte, neskena eta mutilena. Orain artean azaldu ez direnek aukera duete parte hartzeko.

## GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

Gosarixak eta pintxo goxo goxuak !!

Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34



**HNOS. BENITO ANAIAK**

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)



# Soraluze BHI institutuaren webgunea martxan da

*Teknologia berrietara moldatzeko apustua eginez, Soraluze BHI institutuak bere webgunea sortu du. [www.soraluzebhi.org](http://www.soraluzebhi.org) helbidean sartuta, ikastetxean gertatzen denaren berri izateko aukera dago, baita iritziak eman eta parte hartzeko ere.*

## Ikasle, guraso eta irakasleentzat

Abenduan jarri zuten martxan institutuko webgunea, ikasleen, irakasleen eta gurasoen elkargunea sortzeko asmoarekin. Paulo Argarate, institutuko zuzendariak adierazi digunez, "gaur egun ikastetxe gehienek web orria dute eta guk ere sarean egon behar dugu". Edozein sartu daiteke ikusteko edo irakurtzeko. Idazteko, ordea, erabiltzaile gisa alta eman behar da.

**Paulo Argarate, zuzendaria: "Gurasoei ere bloga erabiltzen erakusteko prest gaude"**



Pauloren esanetan, "zaila izango da, ikasleak, gurasoak eta irakasleak blog hauetan parte hartzea konbentzitzea eta animatzea. Baina ahaleginduko gara". Irakasleak prestakuntzan ari dira eta informatikako ikasleek gaia lantzen dihardute. "Gurasoei blog batean nola idazten den irakasteko prest egongo ginateke", dio Paulok, "oso interesgarria izango litzateke guraso talde txoreen bat blogean idazten jartzea, beraien iritziak, kezak eta antzekoak jakiteko". Aukera bat baino gehiago dago webguneen artean; ikastetxe askok

kanpoko enpresaren baten zerbitzuak kontratatzen dituzte, baina "garestia da, ez duzu web orriaren gaineko kontrolik eta, normalean, orri estatikoak dira, hilak". Nahia go izan dute software askearen aukerak baliatzea, "doakoak eta oso dinamikoak". Berritzeguneko IKT aholkulariari laguntza eskatuta, bloga aukeratu zuten.



Ikasleek egindako webguneak



## Zer da bloga?

Webgune pertsonal edo kolektiboa da bloga; baina ohiko webguneetan ez bezala, blogetan oso maiz erabiltzen da informazio berria eta edozeinek bere iritzia emateko aukera izaten da. Hiru blog jarri dituzte:

- **Blog nagusia:** gai orokorretarako. Irakasleek ez ezik, gurasoek ere parte har dezakete.
- **Blog akademikoa:** ikasleen lanak argitaratzeko balioko du, baita irakasleek beraien irakaskaiaren xehetasunak jakinarazteko ere (minimoak, ebaluatzeko jarduerak, datak eta abar).
- **Ikasleen bloga:** ikasleek erabiltzeko da. Beren iritziak ematen dituzte ikastetxeko gaiei edo bestelakoei buruz.



## Funtzionamendua, berriak eta ikasleen webguneak

Blogez gain ikastetxearen funtzionamenduari lotutako zenbait atal ere baditu web orriak. "Barne arautegia"n, ikasleen betebeharrak, hutsegiteen sailkapena eta arautegiaren aplikazioa azaltzen dira. "Normalkuntza plana 2006-2010"ean, institutuko euskararen normalkuntza plana oso-osorik

**[www.soraluzebhi.org](http://www.soraluzebhi.org) ikastetxeko informazioa jasotzeko eta iritziak emateko webgunea da**

irakur daiteke. "Euskararen eta loturak" atalean, euskararen inguruko web orriak, hiztegiak, literaturari buruzkoak eta abar begiratzeko aukera dago. "2006-2007ko irteerak" klikatuta, ikasturtean zehar ikasleek egingo dituzten irteeren egutegia eta nondik norakoak aurki daitezke. Eguneratu ahala, landiko dituzten gaiei buruzko atal berriak agertzen dira: hezkuntza afektibosexuala, eskola agenda 21... Ikasleek ere parte hartu dute bloga egiten. Beren webguneak ikusgai jarri dituzte, bakoitzak atsegin zaizkion gaien inguruan eginikoak.

# Hamabi bikote ari dira parte hartzen txapelketa azkarrean

Hasi dira lau t'erdiko txapelketa azkarreko partiduak jokatzen. Final laurdenetan izango diren sei bikotetik lau sailkatuta daude jadanik: **Ander Heriz** - **Xabier Arribillaga** **Ernesto Oregi** - **Andoni Calles** **Gorka Boiar** - **Anartz Lasa** **Zuhaitz Ostolaza** - **Ander Oñate**

Zapatuan, hilak 10, 12etan eta astelehenean, hilak 12, 18:45etan jokatuko dira. Finalerdiak berriz, martxoaren 17an eguerdiko 12etan izango dira. Finala Korrikaren bezperan jokatuko da, martxoaren 24an, zapatua, iluntzeko 19:00etan Kiroldegiko frontoian.



## X. Soraluze Saria bertan behera geratu zen

Aurtengo txirringarritza proba ez zen otsailaren 25ean ospatu, epaileen arteko tirabiren ondorioz. 2006 urtean ere arazo berberak izan ziren epaile arbitroekin, Euskal Elkargoaren eta Gi-

puzkoako Elkargoaren konpetentziak argi ez zeudelako. Behin elurragatik bertan behera geratu bazen ere, 10 urteotan lasterketa beti ospatu izan da. Oraindik ez dute esan noiz izango den.

### EMAITZAK

#### ESKU PILOTA

##### Otsailaren 23tik martxoaren 7ra

• Mtz de Irujo - Nalda III	8
Titin III - Laskurain	22
• Capellan - Laskurain	22
Larralde - Lasa	14

##### Udaberri txapelketan

• Atxotegi - Loiola	22
Lizaso - Txapartegi	21
• Atxotegi - Ulazia	19
Rodríguez - Intxausti	22

##### Deba bailarako txapelketan

• Atxotegi - Loiola	18
Etxaniz - Egaña	22

#### FUTBOLA

- Urnieta 4 - Sora 0 (Reg.)
- Aretxabaleta 4 - Sora 2 (jub.)
- Sora 2 - Hamaika bat 2 (kad.)

### AGENDA

#### FUTBOLA

- Zapatua 10**, 16:30etan, Ezozin
- Sora - Ikasberri (Erreg.) Igoera
- Zapatua 10**, 11:00etan, Legazpin
- Ilintxa - Sora (kad.) Kopa
- Domeka 11**, 17:30etan, Hernanin
- Hernani - Sora (jub.) Igoera

#### ESKU PILOTA

**Barixakua 9**, 22etan Valleladon (ETB1)

- Irujo - Laskurain
  - Titin III - Lasa III
- Barixakua 9**, 22:30etan Elgoibarren
- Atxotegi - Loiola
  - Agirre - Biteri

## ARMENDIA

### JATETXEA

Ezoz Auzoa, 11  
20590 Soraluze  
Tfnoa 943 75 10 02

**Sukaldaritza tradizionala**

## MENDATA taberna

- Pizzak
- Bokadilloak

**Sukaldetik zure etxera!!**

- Kazuelitak
- Razioak

ostirala **08:30 - 22:30**  
larunbata **08:30 - 22:30**  
lgandea **08:30 - 22:00**

**Tel.: 943 75 13 87**

*Disainua eta Sormera*

Polígono Amillage, nº 5  
Tlf.: 943 76 99 85  
20570 **BERGARA** (Gipuzkoa)  
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

## IÑAKI IÑARRA


### HARATEGI ETA URDATEGIA

Kalebarren 29  
Tfnoa 943 75 12 49  
Soraluze

# Oscar Alvarez

“ Tragedietan ere plazerra egon behar da, komedietan bezala ”

*Hamar urtetik gora da Kili-kolo antzerki taldea sortu zela Eibarren. Gaur egun, ordea, 4 soraluzetar eta eibartar batek osatzen dute taldea. Antzezlanak eskaini eta ikastaro irekiak antolatzen dituzte. Otsailean izandako bufoi ikastaroko irakaslea izan da Oscar Alvarez. Antzerkian esperientzia handiko gizona, interpretazioa, clown eta komedia irakaslea da Gasteizko EHUan.*



**Antzerkiak ez du esan nahi berdi-naoholtza gainean edo besaulkietan eserita dagoenarentzat. Zer esanahi dauka zuretzat?**

Antzerkia imajinario hutsa da. Bidaiatu egiten dugu, amestu. Libreago sentiarazten gaitu antzerkiak. Errealitateak izorratu egiten gaitu eta benetan aspergarria da. Baina errealitatea hil egiten da antzerkiarekin, baita antzerkia errealitatearekin ere. Zer aukeratuko duzu zuk?

**Antzerkia, noski. Eta zer adierazten du bufoia?**

Ederrak direla uste duten horiei, Jaungoikoen seme-alabei, zein gaiztoak diren esatera datorrena da bufoia. Haietaz barre egiten du, burlaka aritzen zaie, parodiak egiten ditu beren kontura, eta ez dauka arazorik egoera limiteraino eramateko. Urrunago ere bai. Bera pozik dago egiten duenarekin.

**Zeintzuk dira bufoiak?**

Bufoiek bere aitatzko adoratzen dute, Lucifer. Gizarteak baztertuta, atzean, utzi dituen pertsonak dira, elbarrituak, emagalduek...

**Zer erakutsi nahi izan dozu bufoi ikastaro honetan?**

Biraoek, itxuragabetasunak eta parodiak ematen duten plazerra transmititzen saiatu naiz. Aktore batek bere bufoi izaera lantzean lortu ditzakeen zorrotasuna eta edertasuna zein haundiak izan daitezkeen azaltzen ahalegindu naiz.

**Ze teknika erabiltzen dozu ezau-garri horrek lantzeko?**

Jolastu eta jolastu. Dena da jolasa, bata bestearen atzetik. Jolasten baduzu, gozatu egingo duzu, dibertitu egingo zara, eta denak

pozik izango dira momentua zurekin elkarbanatzearen. Komedia edo tragedia antzetzuta, berdinberdin.

**Orduan tragediakin be dibertidu leike?**

Antzezlan tragikoenean ere plazererako tartea egon behar da, ez komedian bakarrik. Jolas horretan gehituz doaz egoera dramati-koak, eztabaidak, arazoak... baina jolasa izan behar du beti.

**Nun egin dozu zuk ikasketak?**

Euskal Herrian ikastaro batzuk egin nituen pare bat urtean. Ondoren Londonen izan nintzen bi urtez ikasketak egiten, “Ecole Philippe Gaulier” eskolan. Hiru muntaietan parte hartu nuen, telebistarako kolaborazioak egin nituen... eta orain irakasten dihardut.



**Juan Mari**  
Arraindegia

Eguneroko  
arraina  
eta konjelatuak

Merkatu Plaza  
20590 Soraluze  
Tfnoa 943 75 24 40  
Partikularra 943 74 03 69



**kutxa**

gizarte ekintza

## Argazki zaharra



Iturria: Luis Alberdi

### San Roke Txiki 1963an

Eskusoinu bi, panderua eta albokia hartuta, San Roke Txiki eguna ospatzen azaltzen da kuadrillia. Gerriko eta painelo gorrixekin zezenan zain ageri dira balkoipian.

**Ezkerretik eskumara eta goitik behera:** Jose Ramon Aizpiri, Maribel Agirre, Juan Antonio Garitano, Rosa Mari Aizpiri, Ezozi Juaristi, Begoña Gantxegi, Koro Larrañaga, Mari Fran Aizpuru, Pili Larrañaga, M<sup>e</sup> Jesus Mendia, Blanca Arana, Fernando Agirre, Manolo Larrañaga, Luis Alberdi, Javier Sanz, Jesus Ansola, Jesus Txurruka, Juan Cruz Lamariano, Angel Luis Mendia, Roberto Etxabe eta Jesús Artolazabal.

## Lehiaketa

### Trena...



**Aurreko  
aleko  
erantzuna**

1974an kendu zeben, errentagarria ez ei zalako. Maltzagako estaziñotik Plazentziatik zihar Mekolalderaino juaten zan. Gero Mekolalden trenbide bat Zumarragara eta bestia Gasteizera heltzen zan. Garrantzitsua zan orduan trena Deba bailararako, biztanle asko zerelako eta industriarako mesede zalako.

## HERRIAREN HISTORIA

### GALDERA

Zein urtetan  
zabaldu zan  
Itxaropena?

- 1972xan
- 1982xan
- 1992xan

Aukeratu erantzun zuzena.

Deitu **943 75 13 04** ra

edo e-mail bat bidal ezazu:

**[pilpilean@euskalnet.net](mailto:pilpilean@euskalnet.net)**



**SARIA**



Fisioterapia saio bat  
Ormazabal zentroan

**AURREKO ALEKO  
IRABAZLEA**  
Angelica Pia

**SARIA**  
Aseguru bat



**Karta enkarguz,  
jaunartzeak  
eta bataioak**

**EDURTZA** Kafetegia  
Taberna eta jatetxe zerbitzua

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze

Telefonoa 75 24 09

**ARRANO**  
*tabernia*

“Giro euskalduna eta sanua”

**ETORRI ETA GOZATU**

**etxera**  
EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK